

## *Zipriztinen distira\**




OLATZ AZPIROTZ LARZABAL

(Irakurlea)

[Olatzazpir@gmail.com]

### *Hori da umorea, maisu!* Elkar, 2013



Guan Moye (Gaomi, Shandong, 1995) idazleak idatzitako *Shifu yuelaiyue youmo* ipuin bilduma 1999. urtean argitaratu zen jatorrizko hizkuntzan eta ordutik, hainbat hizkuntzatarara itzulia izan da, tartean, euskara. Gurera Maialen Marin eta Aiora Jaka itzultzaileek eka- rri zuten 2013. urtean, zehazki Mo Yanek Literatura Nobela irabazi eta urtebetera. Itzulpena, 2012. urteko Jokin Zatiegi Sariari esker egin zen, sari horren helburua Literatura Nobela irabazitako obrak euskarara ekar- tzea baita.

Guan Moyek bere literatur lanak sinatzeko Mo Yan ezizena darabil, «ez ezazu hitzik egin» esan nahi duela, bere haurtzaroaren eta Iraultza Kultural maois- taren oroimenez. Moyek beranduago ezizenaren jato- rria aitortu zuen; garai horietan, gurasoek, etengabe esaten omen zioten zeozer txarra esatea ekiditeko hobe zuela hitzik ez egin. Guan Moye Txinako Askapenerako Herri Armadan zegoela hasi zen idazten, eta ordutik, ugariak izan dira bere lan eta sariak. Bere bi eleberri Zhang Yimouk zuzendutako *Sorgo rojo* filmera egokitzeari esker egin zen ezaguna mendebaldean. Are gehiago, idazleak mendebaldeko idazleen eragina izan duela aitortzen du, Gabriel García Márquez, Tolstoi eta Faulknerrenak batez ere. Sarietako dagokienez: 1988ko Neustadt eta 2007ko Man Asian sarietako hautagai izan zen, 2009an Txinako Literaturako Newman Saria jaso zuen eta 2012an Suediako Akademiaren sari nagusia jaso zuen, Literaturako Nobel Saria. Bere lan batzuk bere jaioterrian debekatuak izan arren, hauek dira bere lanetako zenbait: *Sorgo Rojo* (1987), *Las baladas del ajo* (1988), *Ar- doaren errepublika* (1992), *Bular handiak, aldaka zabalak* (1996), *Hori da umorea, maisu!* (1999), *Bizitza eta heriotza higatzen ari zaizkit* (2006), *Aldaketak* (2010), *Rana* (2011), *¡Boom!* (2013).

\* [ENVIADO 2022-10-27 • ACEPTADO 2022-10-27] • DOI: <https://doi.org/10.58504/rgu.36.10>

*Hori da umorea, maisu!* itzulpenean parte-hartutako itzultzaileei dagokienez, Aiora Jaka (Donostia, 1982) itzulpengintza eta interpretazioan lizentziaturiko irakasle eta ikertzailea da eta bere itzulpenen artean Yan Lianke, Yasusi Muraki eta Cornelia Funke alemaniarra aurki daitezke, besteak beste. Bigarrenik, Maialen Marin itzulpengintzan eta kulturarteko ikasketetan doktorea da, eta itzulpengintzan (txinatar-ingelesa eta txinatar-gaztelania), txinatar literaturaren ikerketan eta irakas-kuntzan dihardu. Bere lanen artean Yan Lianke, She Congwen eta Ni Huiru aurki daitezke.

Bilduma osatzen duten zortzi ipuinak honakoak dira: bildumari izena ematen dion «Hori da umorea, maisu!» ipuina, «Gizona eta piztia», «Hegaldia», «Burdinazko haurra», «Sendagai miragarria», «Maitasun istorio bat», «Shen lorategia» eta azkenik, «Haur abandonatua». Ipuinak elkarrekin lotzen dituzten elementuak nagusiki bi dira: satira eta umorea. Bi ezaugarri horiek erabiliz agertzen dira ipuin guztietan pertsonaia nagusiaren eta errealtatea edo orduko Txina osatzen duten osagai ekonomiko (kapitalismoa), politiko edo sozialen arteko talkak. Talka horietan kokatzen du egileak bere literatura-sorkuntzaren sorburua; bakardadean eta gosean, zehazki.

Itzulpenei dagokienez, euskal literaturara ekarritako lanak ugariak dira. Halere, hizkuntzen arteko hierarkizazio ikusezin bat dagoela nabarmena da. Horren adierazgarri dira txinerako literaturatik euskarara itzultitako lan urriak. Aldiz, irakurlearengan hausnarketa pizteko gai diren ipuin-bilduma gehiago behar dira gure literaturan. Halere, aitortu beharra dago, kasu honetan ipuinek, nahiz eta umoretik idatziak izan eta gaiak oro har ezagunak eta akaso gertukoak direlarik, sentsazio garrantza sorrarazten dutela. Ordea, errealismoak berarekin dakartza izaera horretako sentsazioak, inoiz ez baita erosoak sistemak sor ditzakeen egoeren berri izateak. Aitzitik, sasoiak da itzulpenen arteko ezberdintasunak orekatzen saiatzeko. \*Sasoiak (GARAIA) da\* itzulpen kopuru horiek ugaritu eta euskara beste hizkuntzetan idatzitako obrekin aberasteko. GARAIA DA.